



## DROGA MENDEKOTASUNEN ETA BESTE MENDEKOTASUN PSIKOLOGIKO BATZUEN TRATAMENDURAKO DIRULAGUNTZEN ARAUDIA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 2008/03/31n

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008/06/10ean

### **Aldaketak:**

- **1. aldaketa:**  
5. Puntua aldatu eta gaztelerazko bertsio osoa  
Onartuta: Udalbatzak 2012/02/27an  
Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2012/05/11n

### AURKIBIDEA:

1. ARRAZOIA.....	2
2. HELBURUA .....	2
3. ONURADUNAK.....	2
5. BALDINTZAK.....	3
6. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK.....	3
7. ESKABIDEAK .....	4
8. AURREKONTUA.....	5
9. ESKAEREN INGURUKO ERABAKIAK, FROGATZEKO ERAK ETA ORDAINKETAK....	5



# **DROGA MENDEKOTASUNEN ETA BESTE MENDEKOTASUN PSIKOLOGIKO BATZUEN TRATAMENDURAKO DIRULAGUNTZEN ARAUDIA**

## **1. ARRAZOIA**

Bergarako Udalean 1992ko droga-menpetasunei buruzko araudia egon da indarrean orain arte. Hori horrela, eta kontuan hartuta urte hauetan droga-mendekotasunaren inguruko alderdi asko izugarri aldatu direla, araudia berrikusteko eta eguneratzeko beharra ezinbestekoa da.

Alde batetik, tratamendurako zentroi dagokienez, tratamendu batzuk Bergaratik urruti geratzen dira, nahiz eta, bailarako osasun mentaleko zentroak egun ematen duen eskaintzaren bidez, tratamendurako eskaintza gerturatu egin den neurri batean. Hortaz, garbi dago behar-beharrezkoa dela neurri horri eustea.

Bestalde, tratamendurako zentroek tratamenduen eskaintza profil eta egoera berrietara egokitu behar izan duten moduan, geu ere egungo egoerara egokitzeko premia ikusi dugu. Horrela, bada, kontuan hartu beharko dira kontsumo goiztiarren edo arazotsuen eraginez tratamendua behar duten nerabeak. Izan ere, kontsumo horrek eskola-porrota, delituzko portaerak, portaera-trastornoak eta abar ekarri ditzakete. Era berean, behar-beharrezkoa da, sustantziekiko mendekotasuna ez ezik, beste mendekotasun psikologikoak ere kontuan hartzea: ludopatiak, teknologia berriekiko mendekotasunak...

Baliabide hau Droga-mendekotasunen Prebentziorako III. Toki Planaren barruan dago, eta pertsonen errekupeazio- eta gizarteratze-prozesuak errazteko eta bazterketa-egoerei aurrea hartzeko ekintzat hartu behar da. Aldi berean, kaltetuak tratamenduan jartzea sustatzeko erabili nahi da.

## **2. HELBURUA**

Substantzia batzuen mendean badaude eta/edo beste mendekotasun psikologiko batzuk (ludopatia, teknologia berriekiko mendekotasuna...) edo kontsumo goiztiarren ondorioz portaera arriskutsuak badituzte, Bergarako bizilagunei Euskal Autonomia Erkidegoko tratamendu-zentro publikoetan eta itunpekoetan tratamendua jasotzeko aukera ematea.

## **3. ONURADUNAK**

a) Droga-mendekotasunak sortutako arazoak, bestelako mendekotasun psikologikoak edo kontsumo goiztiarren ondorioz portaera arriskutsuak dituzten Bergarako bizilagunak, betiere tratamendu-programa bat egiten ari badira.

Halaber, kaltetuaren jarraipena egiten duen pertsona (senide edo laguna), kaltetuaren tratamenduak beharrezkotzat jotzen badu.

b) Kaltetuaren senitartekoak, bikoteak eta lagunak, Bergarako bizilagunak badira. baldin eta autolaguntza-taldeetan aritzen badira (baita pertsona ukitua tratamenduan ez badago ere), haren egoera hobeto ulertzeko, tratamendua hartzera bultzatzeko, eta mendeko



pertsona batekin bizitzeak sortzen dituen egoerak egoki gestionatzeko. Kasu horretan dirulaguntzak urtebeteko iraupena izango du gehienez ere.

#### **4. LAGUNTZA MOTAK**

2. atalean adierazitako zentroetara joateko dira dirulaguntzak, joan-etorrietan egiten diren gastuetarako zehazki. Honako hauek jaso ditzakete: kaltetuek eta laguntzaileek, 3.a) ataleko onuradunen kasuan, eta eskatzaileek, 3.b) ataleko onuradunen kasuan.

Egunean egindako joan-etorri bat baino ez da diruz lagunduko, lineako autobusaren kostuaren arabera. Dena den, eta kasu guztietan, gehienez honako dirulaguntza hau emango da joan-etorriko: Bergaratik tratamendu-zentroa dagoen probintziako kapitalerako joan-etorriaren kostua.

Autolaguntzako taldeetan parte hartzeko laguntzak gehienez urte betez emango dira.

3.a) atalean adierazitako onuradunen kasuan, Udalak beste gastu batzuk ere lagundu ditzake diruz, betiere aurrekontuak aukera ematen badu. Gizarte Ongizateko informaziorako batzordeak kasu bakoitza aztertu eta proposamena egingo du, organo eskudunak erabaki dezan.

Dirulaguntza horiek bateragarriak izango dira helburu berarekin jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, sarrera eta/edo baliabiderekin. Dena den, zenbateko osoa (bera bakarrik edo beste dirulaguntza edo sarrera batzuekin batera) ezingo da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

#### **5. BALDINTZAK**

Eskatzaileak Bergaran egon behar du erroldaturik, dirulaguntza-eskabidea aurkezten duenean.

Diru-laguntzak eskatu ahal izateko, beharrezkoa izango da tratamendu-programan edo autolaguntza-taldeetan bi hilabetez aritzea. Laguntzak, emanaz gero, atzera-eraginezko izaera izango du, hau da, tratamenduari ekin zitzean egunetik emango da, data horretatik hiru hilabete baino gehiago igaro ez badira.

**TRATAMENDUARI EKIN ZITZAIONETIK HIRU HILABETE BAINO GEHIAGO IGARO BADIRA, EMANDAKO DIRU-LAGUNTZARI GEHIENEZ ERE ESKAERA AURKEZTU AURREKO HIRU HILABETEEI DAGOZKION ATZERA ERAGINAK APLIKATUKO ZAIZKIO.**

#### **6. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK**

Tratamendua jasotzen edo autolaguntzako taldeetan parte hartzen duen bitartean, edozein aldaketa (tratamendua uztea, alta hartzea...), gertatzen bada, dirulaguntzen onuradunak Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio Teknikariari jakinarazteko betebeharra du. Horretarako tratamendu-zentroko edo autolaguntza-taldeko txostena aurkeztu beharko du, aldaketa gertatu ondorengo 30 egunen barruan.



## 7. ESKABIDEAK

Interesatuak edo legezko ordezkariak aurkeztuko dituzte eskabideak. Horretarako, araudi honetako 1. eranskinean dagoen inprimakia bete eta Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dute, edo bestela, azaroaren 26ko 30 /1992 legearen 38.4 artikuluan ezarritako bideetako bat erabilita. Inprimaki hori ez ezik, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.

b) Tratamendurako laguntza eskatzen bada, tratamendu-zentroak egindako ziurtagiria. tratamendua noiz hasi zuen eta tratamenduan gutxienez 2 hilabete daramatzala ziurtatuz. Autolaguntzako taldeetan parte hartzeko bada, berriz, autolaguntza-taldeak egindako ziurtagiria aurkeztu behar da, gutxienez 2 hilabetez parte hartzen ari dela ziurtatzeko.

c) Beste entitate eta erakunde batzuei aurkeztutako dirulaguntza-eskaeren, horiek emandako dirulaguntzen eta jarduera eta programak gauzatzeko lortutako bestelako sarreraren zinpeko aitortpena.

d) Dirulaguntzarik ez emateko arrazoiak, azaroaren 17ko 38/2003 legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehazten direnak, betetzen ez direla egiaztatuko duen zinpeko aitortpena.

Interesatuak eskaera bertan behera uzteko aukera izango du prozesuaren edozein unetan, eta idatziz jakinarazi beharko du bere asmoa. Orduan, espedienteak artxibatu egingo da.

**ESKAERAK EZ BADIRA ERABAT BETETZEN EDO ESKATUTAKO AGIRIEN BAT FALTA BADA, HONAKO HAU ESKATUKO ZAIO ESKATZAILEARI: HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAREKIN BAT, HAMAR EGUN BALIODUNETAN AKATSAK ZUZENDU ETA KASUAN KASUKO AGIRIAK AURKEZTU DITZALA. BESTELA, ESKARIA BAZTERTUTZAT JOKO DA, AURRETIK ERABAKIA JAKINARAZI ONDOREN, AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAREN 42. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKOEI JARRAIKI.**

Beharrezkoa iritzi gero, prozeduran zehar edozein unetan, egoki deritzaion dokumentazio osagarria aurkezteko edo egoki deritzaion bestelako baldintza edo izapide bat betetzeko eskatu ahal izango zaio eskatzaileari, eskaerari buruzko erabakia hartzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 76. artikuluan aurreikusitakoekin bat. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango du, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita. Berariaz jakinaraziko zaio hori egiten ez badu, eskaera baztertutzat joko dela, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan.

Eskaera aurkezte hutsak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola Udalari berarekin zerikusia duten datuak egiaztatzeko edo bilatzeko, gestio egokiak egin ditzan. Datuak bilatzeari dagokionez, eskatzaileak araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko behar diren datuak baino ez dira bilduko.

Halaber, eskatzaileak, eskaera aurkeztean, bete-betean onartzen ditu araudi honetan ezarritako guztiak.

Datu faltsuak emanez eta/edo ezkutatzuz gero, eskaera artxibatu egingo da, dagozkion erantzukizunen kalterik gabe.



## **8. AURREKONTUA**

Bergarako Udalak urtero kopuru jakin bat ezarriko du aurrekontuetan aipatutako dirulaguntzak emateko, indarrean dirauten bitartean.

Eskabideak aurkezteko hurrenkerari erreparatuko zaio dirulaguntzak ematerakoan, aurrekontuetan finkatutako kopurua bukatu arte.

Aurrekontuetako kopurua laguntza jasotzeko eskubidedun eskabide guztiak betetzera iritsiko ez balitz, Informazio Batzordeak ahalmena izango du momentu horretan irtenbiderik egokiena zein den aztertzeko eta erabakitzeko. Proposamena organo eskudunak onartu beharko du, gero gauzatzeko.

## **9. ESKAEREN INGURUKO ERABAKIAK, FROGATZEKO ERAK ETA ORDAINKETAK**

Eskaeraren izapideak eta balorazioa prebentzio-teknikariak egingo ditu. Txosten batean honako hauek adieraziko ditu: laguntza ematea egokia den ala ez eta, egokia baldin bada, zenbat denborarako eman beharko litzatekeen. Gehieneko epea 3 urtekoa izango da 3.a) puntuan zehaztutako kasuentzat, eta urtebetekoa 3.b) puntuan zehaztutakoentzat.

Txostena aztertu eta gero, organo eskudunak ebazpen zioduna emango du, eskaria onartzeko edo ez onartzeko.

Eskaria erregistroan aurkeztu eta gehienez ere bi hilabetera eman beharko da ebazpena. Eskaera zuzentzea eskatzen bada, epe hori etenda geratuko da jakinarazpenaren datatik zuzenketa gauzatzen den egunera arte, edo bestela, zuzentzeko ematen zaion epea bukatu arte.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea bukatu eta berariazko erabakirik hartu ez bada, ebazpena emateko obligazioaren kalterik gabe, eskaera baztertutzat jotzeko aukera egongo da, interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera izan dezan.

Behin laguntza onartzen denean, ordaindu baino lehen (gutxienez hilero ordainduko da), kasuan kasuko tratamendu-zentroak edo autolaguntza-taldeak hilero egindako asistentzia-agiagtagiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak. Bertan, tratamendura zenbat egunetan joan den eta bakarrik ala laguntzaile batekin egon den adierazi beharko da 3.a) kasuetan, eta zenbat egunetan joan den autolaguntza-taldearen saioetara 3.b) kasuetan.

Kopuru osoa, hau da, 3.a) kasuan pertsona ukituari eta laguntzaileari dagokien zenbatekoa eta 3.b) kasuan onuradunari dagokiona, eskaeran adierazitako kontuan ordainduko da.

## **10. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK**

Dirulaguntzaren onuradunak ondoren zehaztuko diren betebeharrak izango ditu, eta era berean, Araudi honetako beste punturen batean aurreikusitakoak:

- a) Udalak eskatutako egiaztapen-jarduerak egitea.
  - b) Helburu bereko beste laguntzaren bat jasotzen badu, udalari jakinaraztea.
- Beste laguntza horren berri izan eta berehala jakinarazi beharko zaio udalari.



- c) Udalak egin beharreko egiaztapenetan eragozpenik ez jartzea.
- d) Hala badagokio, dirulaguntza itzultzea.

## **11. ESKAERA BERRIA AURKEZTEA**

Tratamendua utziz gero, beste eskaera bat aurkeztuko da, utzi den egunaren eta tratamendua martxan hasi zen dataren artean hiru hilabete igaro badira.

Tratamendua bukatu eta arazoan berriz erori ondoren beste tratamendu bat egiten bada, orduan ere eskaera berria aurkeztuko da.

Autolaguntza-taldeetara joateko laguntzen onuradunek ezingo dute eskaera berririk aurkeztu.

## **12. ALDAKETAK ETA DIRULAGUNTZAK EZEZTATZEA**

Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bereko dirulaguntzak emanez gero, dirulaguntza emateko erabakia aldatzeko aukera egongo da.

## **13. DIRULAGUNTZAK BERRIKUSTEA**

Dirulaguntzak berrikusteko, kentzeko eta itzultzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

- a) Dirulaguntza derrigorrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Dirulaguntzaren helburu guztiak edo batzuk ez betetzea.
- c) Emandako dirulaguntzaren erabilera egiaztatzeko betebeharra ez betetzea edo zuzen ez betetzea.
- d) Finantza-kontrolako jarduerak edo egiaztapen-lanak eragozte, ukatzea edo egiten ez uztea. Ondorioz, ezinezkoa izatea alderdi hauek guztiak egiaztatzea: jasotako dirulaguntzak nola erabili diren, helburua zenbateraino bete den, beste dirulaguntzarik jaso den edo helburu berari lotutako bestelako sarrerarik edo baliabiderik ba al dagoen.

## **14. ARAUDIAREN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA**

Alkateari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren arau guztiak onartu eta interpretatzerakoan sortutako zalantzak ebatzi ditzan.

## **LEHEN XEDAPEN GEHIAGARRIA**

Araudi honetan zehazki jaso gabeko alderdi guztietan unean uneko dirulaguntza-legedia beteko da. Une honetan, hain zuzen, azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta legea garatzeko araudi orokorra izango dira nagusi.



### **LEHEN AZKEN XEDAPENA**

Araudi honetan xedatutakoekin kontraesanen bat edo kontrako edukiren bat duten maila bereko edo txikiagoko arauak ezeztatuta geratuko dira, atal jakin horietan. Eta zehazki, droga-mendekotasunen tratamendurako dirulaguntzen araudia ezeztatuta geratzen da. Aipatutako araudia Udalbatzaren osoko Bilkurak onartu zuen 1992ko irailaren 24an, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1992ko urriaren 21ean.

### **BIGARREN AZKEN XEDAPENA**

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunera sartuko da indarrean Araudi hau.



I.ERANSKINA/ANEXO I.

**DROGAMENDEKOTASUNEN ETA BESTE MENPEKOTASUN PSIKOLOGIKOEN  
TRATAMENDURAKO DIRULAGUNTZEN ESKAERA ORRIA/  
SOLICITUD DE AYUDAS ECONOMICAS PARA EL TRATAMIENTO DE DROGODEPENDENCIAS Y  
OTRAS ADICCIONES PSICOLOGICAS**

**1. ESKATZAILEA/ SOLICITANTE**

izen-abizenak/ nombre-apellidos					
JAIOTeguna/ FETXA DE NACIMIENTO		E. ZIBILA/ E. CIVIL		NAN/ DNI	
HELBIDEA/ DIRECCION					
HERRIA ETA PROBINTZIA/ POBLACION Y PROVINCIA		TEL.:			

**2. ORDEZKARIA –LAGUNTZAILEA/ representante –acompañante**

izen-abizenak/ nombre- apellidos			
AHAIDETASUNA/ PARENTESCO		NAN/ DNI	

**3. ESKAERA / solicitud**

<p align="center"><b>DROGA MENDEKOTASUNEN ETA BESTE MENPEKOTASUN PSIKOLOGIKOEN TRATAMENDURAKO DIRULAGUNTZa/</b> SOLICITUD DE AYUDAS ECONOMICAS PARA EL TRATAMIENTO DE DROGODEPENDENCIAS Y OTRAS ADICCIONES PSICOLOGICAS:</p> <p><input type="checkbox"/> <b>A) A)tratamenduan DAGOENA /</b> la persona que esta en tratamiento</p> <p><input type="checkbox"/> <b>b) TRATAMENDUA BEHAR DUENAK EZ DU TRATAMENDUA HASI /</b> CUANDO EL QUE NECESITA TRATAMIENTO NO HA INICIADO DICHO TRATAMIENTO</p>
--

**4. eskaera mota/ TIPO DE SOLICITUD**

BERRIA		ALDAKETA	
--------	--	----------	--

**5. BANKU EDO AURREZKI KUTXAKO DATUAK DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO/  
DATOS BANKARIOS O DE LA CAJA DE AHORROS PARA EL COBRO DE LA AYUDA ECONOMICA**





KONTUAREN TITULARRA/ TITULAR DE LA CUENTA	
kontu zenbakia (20 digito) /nº de cuenta (20 digitos)	



**Begarako  
Udala**

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN  
ONDOKOA AITORTZEN DUT:

SAN MARTÍN AGIRRE PLAZA, 1.-  
20.570 BERGARA.

1.- EGAZKOAK DIRELA ESKAERA HONETAN AZALTZEN DIREN DATUAK, ETA BAIMENA EMATEN DIOT BERGARAKO UDALARI DATUOK EGAZTATZEKO, BAITA BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI (ZERGA ADMINISTRAZIOARI BARNE) INFORMAZIOA ESKATZEKO ERE, DATU HORIEK EGAZTATU ETA EGUNERATZEKO HELBURUZ.

2.- Dirulaguntzarik ez emateko arrazoiak, azaroaren 17ko 38/2003 legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehazten direnak, betetzen ez dudala.

3.- GAINERA ONDORENGO HONEN JAKINAREN GAINEAN GERATZEN NAIZELA:

- AURRERANTZEAN  
GERTA DAITEKEEN EDOZEIN ALDAKETAREN BERRI EMATEKO OBLIGAZIOA DUDALA.

- INPRIMAKI HONETAKO DATU PERTSONALAK BERGARAKO UDALAK BEHAR BEZALA BAIMENDUTAKO FITXEROETAN SARTUKO DITUELA. DATU HORIEK UDAL KUDEAKETARAKO BAKARRIK ERABILIKO DIRA, BAINA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI EDO HIRUGARRENEI LAGA EDO JAKINARAZI AHAL IZANGO ZAIZKIE ABENDUAREN 13KO 15/1999 LEGE ORGANIKOAN, DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKOAN, AURREIKUSITAKO KASUETAN. HALABER, DATUAK ESKURATZEKO, EZEZTATZEKO, ZUZENTZEKO ETA AURKA EGITEKO ESKUBIDEA ERABILI AHAL IZANGO DUDALA ONDORENGO HELBIDERA ZUZENDUTA: BERGARAKO UDALA.-

DECLARO BAJO MI  
RESPONSABILIDAD LO SIGUIENTE:

1.- QUE SON CIERTOS LOS DATOS CONSIGNADOS EN LA PRESENTE SOLICITUD Y AUTORIZO AL AYUNTAMIENTO DE BERGARA PARA COMPROBAR LA VERACIDAD DE LOS MISMOS, ASÍ COMO PARA RECABAR INFORMACIÓN DE OTRAS ADMINISTRACIONES, INCLUIDAS LAS DE CARÁCTER TRIBUTARIO, PARA VERIFICAR Y ACTUALIZAR LOS DATOS.

2.- No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre.

3- ASIMISMO QUEDO ENTERADO DE LO SIGUIENTE:

- DE LA OBLIGACIÓN DE COMUNICAR CUALQUIER VARIACIÓN QUE PUDIERA PRODUCIRSE EN LO SUCESIVO.

- DE QUE LOS DATOS PERSONALES CONTENIDOS EN ESTE IMPRESO SERÁN INCORPORADOS A LOS DIFERENTES FICHEROS DEBIDAMENTE AUTORIZADOS TITULARIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE BERGARA. EL USO DE DICHS DATOS SE RESTRINGIRÁ EXCLUSIVAMENTE A LA GESTIÓN MUNICIPAL, PUDIENDO PROCEDERSE A SU CESIÓN O COMUNICACIÓN A OTRAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS O TERCEROS EN LOS SUPUESTOS



PREVISTOS EN LA LEY ORGÁNICA  
15/1999, DE 13 DE DICIEMBRE DE  
PROTECCIÓN DE DATOS DE  
CARÁCTER PERSONAL Y DE QUE  
PODRÉ EJERCER LOS DERECHOS  
DE ACCESO, CANCELACIÓN

RECTIFICACIÓN Y OPOSICIÓN  
DIRIGIÉNDOSE A: BERGARAKO  
UDALA.- SAN MARTÍN AGIRRE  
PLAZA, 1 .- 20.570 BERGARA.

BERGARA, \_\_\_\_\_ EKO \_\_\_\_\_ AREN \_\_\_\_\_ A  
BERGARA, A \_\_\_\_\_ DE \_\_\_\_\_ DE \_\_\_\_\_

IZP/FIM

